

Josu Aztiria Urtaran

♦ ELHUYAR HIZKUNTZA ETA TEKNOLOGIA UNITATEAREN ARDURADUNA



Euskararen gizarte-erakundeon etorkizuna: palankak eta balaztak

EGUNEROKO URGENTZIA eta estutasunetatik ihes egin ez, euskararen garapena xede dugun gizarte-erakundeon eta erakunde publikoen bide-orri eta agenda estrategikoetan kontuan hartu beharreko hainbat iradokizun egiten ausartu naiz lerro hauetan.

BERRIKUNTZA SOZIALA. Aholkularitza, kudeatzaile eta esparru akademikoaren klise berri bihurtu da berrikuntza soziala, baina, zer den galdetuta, gutxi daki ondo. Orain aste batzuk, Gorka Espiau etorri zen Hernaniko Orona Ideora, Elhuyarrek antolatutako jardunaldira, eta definizio argigarri hau eman zigun: "Gizartea eraldatzen duten ideia, proiektu eta produktu berriak martxan jartzea da berrikuntza soziala". Kliseak klise, euskararen gizarte-erakundeon jardueran ikuspegi hori barneratzen badugu, aukera asko irekitzen zaizkigula esango nuke.

Berrikuntza disruptiboz jositako historia aberatsa izan da euskararen berreskurapena (euskararen estandarizazioa, ikastolen mugimendua, euskalduntze-alfabetatzea, hedabideak, hizkuntza-teknologietan egindako urratsak...), baina azken urteetan berrikuntza inkrementalean mugatuta gaudela esango nuke

INKREMENTALA EDO ERRADIKALA. Bi berrikuntza-mota daudela esaten du teoriak: inkrementala aldaketa txikiz ehundutako berrikuntza da; disruptiboa edo erradikala, aldiz, merkatu edo gizarte-eremu baten jokalekua erabat aldatu eta eraldaketa sakona dakarrena da. Berrikuntza disruptiboz jositako historia aberatsa izan da euskararen berreskurapena (euskararen estandarizazioa, ikastolen mugimendua, euskalduntze-alfabetatzea, hedabideak, hizkuntza-teknologietan egindako urratsak...), baina azken urteetan berrikuntza inkrementalean mugatuta gaudela esango nuke. Logikoa da, baina iruditzen zait disruptzio-logikan jarri behar dugula berriz indarra, euskararen garapena eta gizartearen eraldaketa bul-tzatzen jarraitzeko.

IKERKETA ETA GARAPENA. Berrikuntzak, soziala eta teknologikoa inkrementala edo disruptiboa izanda ere, ikerketa eta garapena izan behar du oinarri. Nola lortuko ditugu euskarazko produktu berritzaile eta erakargarriak? Nola bermatuko dugu euskara digitalki osasuntsu egotea, ikerketarik eta garapenik gabe? IKT laguntzetan izan diren beharakadak, 2014an Saiotek deialdia bertan behera geratu izana, eta Euskal Zientzia eta Teknologia Sarearen berrantolaketa berriaren ziurgabetasuna ez dira batere sintoma onak.

SROI METODOLOGIA (*Social Return Of Investment*). Egindako inbertsio eta jarduerak gizarteari emandako etekina neurtzeko sistemari deitzen zaio nolabait. Mundu anglosaxoian asko zabaldu da, eta badugu nondik ikasi. Zertarako? Ikusezinak izateari uzteko eta gizarteari egiten diogun ekarpen soziala eta ekonomikoa objektibatzeko.

ASKOTAN ESANA. Esan bai, baina gutxitan praktikan jartzen duguna. Kilometro karratu gutxiren barruan zenbat enpresa eta erakunde ari gara bezero berberei produktu eta zerbitzu oso antzekoak eskaintzen? Ikerketa-proiektu berdinak edo oso antzekoak aurkezten? Eta produktua ez bada bideragarria, denak itzulpenak egiten hasi, tarifak jaitsi, eta kuotatxoa eskuratzen... Baina, horrela, merkatua ez da haziko, elkarri tokia jaten diogu, eta marjinak jaitsi egiten dira. Epe luzera, guztion kalterako. Hekimen eta Langune jaio dira, baina elkarlanean bada zertan sakondu.

EROSLE-LOGIKATIK INDUSTRIA-LOGIKARA. Ez gara gu ikuspegi-falta dugun bakarrak. Adibide argiak ditugu euskal administrazioan erosle-logika sektore ekonomikoa indartzeko estrategiari gailendu zaiola esateko (itzulpene automatikoan edo ahotsaren teknologietan, esaterako). Aldeak alde, inork imajinatzen du Euskotren CAFenak beharrean Alstom-en trenak erosten? Baliabide-hornitzailearen bigarren mailako papera jokatzeko edo hizkuntza-teknologiaren sortzaile eta garatzaile izatea, hori da hautua. Ni, behintzat, bigarrenaren alde, baina, horretarako, ezinbestekoa da guztiok ere hori sinestea. ■

